

Gure proiektua garatzeko, beharrezko lan-espazioa eta ekipamendua behar ditugu. Gasteizko bulegoa da gure sede nagusia, eta bertan ordenagailuak (adibidez, MacBook Pro-ak) eta mugikorrak (iPhone eta Samsung modeloak) erabiltzen ditugu aplikazioa probatzeko. Horrez gain, Bluetooth gailuak eta sentsoreak bezalako osagai teknologikoak erabiltzen ditugu gure prototipoak sortzeko eta probatzeko.

Gure aplikazioaren funtsezko zatia softwarea da, Python eta Java erabiliz garatzen ari garena. Gainera, datuen segurtasuna bermatzeko RSA enkriptazio teknologia erabiltzen dugu.

Gure enpresa sortzen duten giza baliabideak hurrengo langileak dira: Lucía, giza-baliabideen arduraduna. Uxue, marketing arduraduna. Eki, teknologia zuzendaria eta ingenieritza taldearen arduraduna. Eta Leandro bezeroentzako harremanen arduraduna. 6 teknikarik, 4 diseinatzailek eta 10 komunikatzailek osatuko dituzte talde hauek.

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat finantza-baliabide beharko ditugu. Gasteizko Udalaren eta AJEBASKen dirulaguntzak eta gure 8.000 euroko aurrezkiak erabiliz behar ditugun baliabide eta kontratazio guztiak lortzea posiblea izango da.